

ARROBIYUA

| Komikiaren gidoia eta egilea: **Alai Zubimendi**.

| Kondairaren bilketa eta interpretazioa, eta komikiko natura eta euskarari dagozkien atalen adaptazioa: **Iñaki Sanz-Azkue eta Eñaut Agirre**.

Marra hori eta beltzez jantzia, basoan, hosto artean, mantso-mantso ibiltzen dena: *Arrobiyua*. Ezagutzen duenak ez du sekula ahaztuko ikusi izana. Ezagutzen ez duenak, ez du sinetsiko Hernanin badenik. "Hau zer dek, dokumentaletako animalin bat?" galdetu izan digute.

"Burbunak eta etsayak" proiektua aurrera eramane dugunok segituan sumatu genuen hori. *Arrobiyua* animalia berezia da. Baserriz baseri ibili gara Hernanin, naturari loturiko hitzak, esamoldeak, ipuinak, mitoak eta kondairak biltzen. Eta bertan jaso ditugu naturari lotuta bizi izan diren, eta bizi diren, pertsonen kontakizunak eta jakituria.



Arrobiyua Etxolaberri baserriaren azpialdeko errekan (arg.: Iñaki Sanz-Azkue).

Txoriak, zomorroak, landareak, arbolak, arrainak, piztiak, narrastiak eta anfibioak, *arrobiyua* (salamandra) bezalako anfibioak ere izan dira hizketagai elkarriketetan. Santa Barbaran ezezaguna, eta Ereñotzu inguruan, ordea, oso ezaguna dute *arrobiyua*. Basoetako *arrobiyua*. Basomutilak hil zituen *arrobiyua*!

Nola ez dute ezagutuko ba!

Ereñotzu inguruko baserrietan ahoz aho igaro da, belaunaldiz belaunaldi, *arrobiyua* janda hil ziren basomutilen istorioa. Eta hortik denek atera dute ondorio garbi bat: "Arrobiyuak benenua dik!".




Ezteizar: Etxolaberri alboko pagadi-hariztia. Basomutilek urtetan lan egindako basoa (arg.: Iñaki Sanz-Azkue).

Arrobiyuaren istorioa baserriz baseri ezberdina da detaileetan, baina berdina oinarrian. Guztietan badira errepikatzen diren basomutilak, sukaldaria, *arrobiyuak*, eltzea, babak...

Jarraian duzuen komikiaren bidez, Hernaniko baserrietan bilduriko kondaira bat erakutsi nahi da. Bertsio ezberdinetan oinarriturik, moldatu dena eta Hernaniko kontestuan jarri dena. Zenbateraino sinistu zuk zerrorek erabaki. Zuk erabaki zer den egia, zer gezurra. Hori baita kondairek duten sekretua. *Arrobiyuak* inoiz kontatuko ez digun sekretua!

ARROBIYUA

"HERNANIKO BASERRIETAN BILDUTAKO KONDARA BATEAN DINARRITUTAKO 'PUNK'"



*MORREGATIK ESATAN DA 'ARROBIYUAK' POZOIA (BENINGA) DUELA